

NAZIOARTEKO POLITIKA



Eborutta

EGOERA

Egun nazioartea egituratua dagoen moduak eragotzi egiten digu bertan nazio gisa aurkeztea. Munduko herriek zail dute estatuen lojikat arautua dagoen marku horretan berdintasun printzipioak oinarri beraien lekua eta zor

zaien errespetua aurkitzea. Aniztasunean etakultura guztiekiko errespetuan oinarritutako nazioartearen alde egiten dugu, munduko merkatuen eta presio-taldearen aginduen menpe egongo ez dena.

HELBURUAK

Nazioarteko Politika garatzeko hiru dira EH Bilduren misioa nagusiak; bake eta normalkuntza politiko prozesuaren nazioarteko jarraipena sakontzearen alde lan egitea, Europar Batasunean enfasi berezia jarriz; Euskal Herria berezko errealitate berezitu bezala, herri gisa, munduan ezagutaraztea, ekonomiarekin, merkataritzarekin, kulturarekin eta bestelako alorrekin lotutako ahalmenak sustatuz eta Herri Burujabe gisa, autodeterminazio librerako duen eskubide demokratikoaren aitortpena sendotuz; eta azkenik, lankidetzaren eta garapenaren aldeko apustua aldarrikatzea, lankidetzaren tresna izan dadin, bakezko bizikidetzaren eta garapena sustatzeko mundu osoan, eta garapena, berriz, Giza Garapenaren eta iraunkortasunaren paradigmatik landuz, egiturazko pobrezia desagerrarazteko.

Misio hauek kontutan hartuta, Eusko Jaurlaritzan, EH Bilduren alor horretako ahalegin guztiak Euskal Herria/Basque Country estrategia birkokatzerara eta guztiz garatzera bideratuko dira, marka hori izan dadin kulturaren, merkataritzaren, ekonomian eta bestelako alorretan ditugun balio eta ahalmenen ikono bereizgarria, iraunkortasunaren eta euskaldunen arteko zein beste herriekiko elkartasunaren printzipioak oinarri hartuta.

NEURRIAK

1 Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Koordinazio Exekutiboari buruzko lege bat egitea, eskumenak zehazteko eta mekanismo egonkorak ezartzeko kanpo harremanekin zerikusia duten Eusko Jaurlaritzako organo eta entitateen arteko koordinaziorako (Kanpo Harremanetarako Saila, kanpoko euskal ordezkariak, Elankidetza, SPRI, Etxepare Institutua, etab.). Lege horretan garatuko den koordinazio exekutiboko eskumenak eginkizun hauek izango ditu, besteak beste:

Kanpo harremanetarako Eusko Jaurlaritzaren jarduera-plan globala proposatzea, garatzea, haren jarraipena egitea eta hura ebaluatzea, Euskal Herria/Basque Country Estrategiari jarraiki. Planak bere baitan hartuko ditu, halaber, Eusko Jaurlaritzaren mendeko organo eta erakundeen zein Eusko Jaurlaritzak gehiengoa duen partzuergo, fundazio eta enpresen kanpo harremanetarako planak eta jarduerak.

Jarduera-protokoloak egitea kanpo harremanen alorrerako.

Kanpo harremanetarako koordinazio exekutiboaren alorreko jarraibide orokorrak helaraztea Eusko Jaurlaritzaren mendeko organo eta erakundeei zein Eusko Jaurlaritzak gehiengoa duen partzuergo, fundazio eta enpresei.

- TTIP/CETAren kontrako akordio parlamentarioa bultzatu, EAE TTIP/CETA gabeko lurraldea izendatuz.

- TTIP/CETAren inguruko herri galdeketa burutu.

2 Euskal Diasporarekin eta hau bizi den herrialdeekiko loturak estutzea.

3 Parte-hartezko prozesu baten bidez, diasporako gazteentzako plan integral bat egitea eta garatzea.

4 Etxepare Institutuarekin lankidetzan aritzea euskararen irakaskuntza eta hedapena sustatzeko.

5 Euskal entitateen eta diasporako eskualdeetako eta herrialdeetako entitateen arteko lankidetzahitzarmenak eta planak sustatzea eta garatzea, Eusko Jaurlaritzaren eskumen esparruan.

6 Euskal etxeetan emakumeen parte-hartzea sustatzeko plana egitea eta garatzea.

7 Diasporaren errealitatea eta jarduerak hedatzea, EITB taldeko hedabideen bidez, eta diasporarako bereziki prestatutako edukiak garatzea.

8 Euskal Migrazioari buruzko Ikerketa Zentro bat sortzea, ikerketa, heziketa eta zabaltze-funtzioak izango dituen.

9 Euskal diasporako pertsonei harreman administratiboekin lagunduko dien zerbitzu berezitua ezartzea.

10 Mugaz gaindiko lankidetzaren sendotzea, europar integrazioaren esparruan.

11 Egun Europako Gaien Zuzendaritzaren baitan lantzen den Mugaz gaindiko lankidetzaren arloz arduratuko litzatekeen zuzendaritza berria sortu, ipar Euskal Herrian sortuko den HELEParekin elkarlana sustatzeko, eta Nafarroako Foru erkidegoarekin batera, Euskal Euroeskualdea sortzeko urrats gisa.

12 Mugaz gaindiko lankidetzarako euskal estrategia zehaztea, baliabideak eta ahaleginak optimizatzeko, bai eta EAEn aldameneko lurralde-entitateei lankidetzaren eskaintzeko eta lankidetzaren horren koherentzia bermatzeko ere.

13 Estrategia horrek bi oinarri izango ditu: (1) Euskal kultura-identitatea sendotzea; eta (2) Lurralde-desorekak murriztea eta euskal lurraldeen arteko erlazioak hobetzea.

14 Nazioarteko harremanak orokorrean zein euskal presentzia sendotzea nazioarteko foroetan.

15 Lankidetzaren aktiboan aritzea Nazio Batuetako sistemako organoekin eta Europako eta nazioarteko gainerako eragileekin, Euskal Herriarentzat lehentasunezko interesa duten alorretan.

16 Kanpoko euskal ordezkartzen hedapen eta egonkortzerako plan integrala diseinatzea eta garatzea.

ECOFINen ordezkartza iraunkorra izateko eskaera egitea, euskal lurraldeen zerga eskumenak direla eta.

Euskara Europar Batasunaren esparruan hizkuntza ofiziala izan dadin aldarrikatzea, eta ofizialtasunaren aitortzea lortze aldera lan egitea.

EAEko parte-hartzea sendotzea gobernu ez-zentralen nazioarteko sareetan; batez ere, Garapen Iraunkorrerako Eskualde Gobernuen Sarean (NRG4SD).

17 Estatu gabeko herriekiko lankidetzaren areagotuko da, giza eskubideen nazioarteko esparru osoaren aitortzea lortzeko ahaleginean dabiltzan nazioekin aliantza estrategikoak sortzeko.

18 Hizkuntza normalizatzeko estrategien alorrean jatorrizko hizkuntzen normalizazio-prozesuen alorra lehentasunezko jardueraren esparru gisa izendatuko da.

19 Euskal Herria/Basque Country estrategia birkokatzea eta guztiz garatzera bideratzea

2013an aurkezturiko Basque Country Estrategia iraunkortasunaren eta euskaldunen arteko zein beste herriekiko elkartasunaren printzipioak oinarri hartuta birkokatzea.

Kanpo Harremanetarako Aholku Batzordearen osaketa berrikusiko da, gizarte mugimenduen eta emakumeen parte-hartzea sustatzeko.

Agente ekonomikoekin batera "Enpresak Nazioartekotzeko Plana" berrikusi eta Euskal Enpresen beharren arabera finantziario, formakuntza eta laguntza neurriak hartzeko.